



HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA

Espedientea: DNCG_LEY_162736/17_02

Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea aldatzea helburu duen Lege Proiektuaren berri jaso dugu bide telematikotik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan otsailaren 23an Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Gobernantza Publikoa eta Autogobernua Saileko Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren 14.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretuak xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezarri zuen: *“euskararen erabileraren normalizazioaren arloan eskumena duenak araua prestatzeko hasierako fasean esku hartu ahal izan dezan”*. Azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak, aurrekoa indargabetuz, bere 4. artikuluan eskaera egiteko epea ezartzen du:

“Proiektua izapidetzen ari den sailak egingo du aholkularitza txostena emateko eskaria, hori taxutzeko espedientea behin behinekoz onartzeko agindua publiko egin ondoren, eta instrukzioa egin duen saileko zerbitzu juridikoak dagokion txosten juridikoa eman ostean”

Izapidetutako dokumentuetan jasotzen denez, aztertzea eskatzen zaigun xedapenaren alde aurreko onarpena otsailaren 21ekoa da. Bete da beraz aipatu Dekretuak xede honekin arautua.

Bestalde, aipatzekoa da hasieratik zintzilikatu direla Lege Proiektuaren euskarazko zein gaztelaniazko zatiak; beraz, bete dela abenduaren 22ko 8/2003 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 7. artikulua. Artikulu hori jarraiki, alde aurreko onarpenak legearen testu osoari buruzkoa izan behar du; euskarazko zein gaztelaniazko zatiak barne.

Xedapen hori betearaztera begirakoa da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakia, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituena:

“betiere dagozkion negoziazio, audientzia eta kontsultak egiteko izapideak egin baino lehenago; izapide horiek guztiak ele bitan dagoen testuarekin egin beharko dira. Ondorengo instrukzio faseetan ere, derrigorrezko txostenak eta irizpenak eskatzeko orduan, bi hizkuntza ofizialetan idatzitako testua bidaliko da.”

Ildo beretik, izapidetzearen baitan jasotako txostenek testuaren zati biak hartu beharko dituzte kontuan eta, urratsez urrats, egokitzapenak bietan egin beharko dira. Tramitazioaren baitan egiten diren moldaketak testuaren zati bakarrean burutzea (usadioak ikusita, gaztelaniazkoan oro har) eta amaieran horren itzulpena egitea lege urraketa litzateke; horrelakoetan, prozeduran erabilitako hasierako testuaren erdia alboratuz (euskarazko zatia, adibidez), izapidetzearen ibilbidea jarraitu ez duen testu berri bat onartzen delako.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Hizkuntzak direla eta, honela dio Lege Proiektuaren Zioen Azalpenean:

Azkenik, euskarazko bertsioari bakarrik badagokio ere, azpimarratu egin behar da Lege honek erakusten duen arduraren, Legearen jatorrizko bertsioan hizkuntza honetan erabilitako hizkera tekniko juridikoa gaurkotzeak planteatzen duen arriskuari aurre egiteko, bat egin dezan euskara teknikoak azken hamarkadatan ezagutu dituen garapen eta egokitzapen azkarrarekin.

Egokitzapen hau ezinbestekoa bihurtzen da, orain dela hogeitun urteko testu bati buruz ari garenean, segurtasun juridikoaren eta, ondorenez, linguistikoaren kaltea ekiditeko. Eta badauka zailtasun tekniko puntu bat ere, bereziki aurreko legezko testuaren zati asko indarrean mantenduko dituen aldaketa-lege bat den neurrian. 1980 eta 1990ko hamarkadatan erabiltzen ziren hitz eta forma asko (nahiz eta hasierako itzultzaile animosoen lan handiari esker emanak, bere garaian euskarara hizkuntz honetan inoiz tratatu gabeko gai eta forma asko, inolako aurrekari historikorik gabe eta baliabide urriekin, gazteleratik itzuli beharrean aurkitu ziren horien lanari esker emanak), legez indarrean dirauten arren, hizkuntzaren eguneroko praktikan zaharkituak geratu dira. Eta hori, legezko testuetan euskararen eguneroko erabilera arruntak euskara juridiko argiagoa normaldu egin duelako, ulergarriagoa eta gaur eguneko erabilera eta praktika juridikorako egokiagoa dena.

Honenbestez, lege honek arazo horri erantzun ahal izateko xedapen gehigarria eta lehen azken-xedapena jasotzen ditu, kontutuan hartuta Legeak berariaz onartzen duela Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigorrezko ahalmenari

buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen testutik ahal duen guztia bizirik mantentzeko asmoa. Horietatik lehenengokoak, eta atzeratu ezinako neurri bezala, artikuluen banaketarako eta horien multzoak izendatzeko erabiltzen den terminologia berriztu egiten du, horrek ahalbideratu behar baitu orain aldatzen diren artikulua indarrean dagoen euskarazko testuan barneratu daitezela. Eta, bigarren, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak gai honen gainean emandako gomendio eta onuak bere eginez, baimendu egiten dio Gobernuari Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen euskarazko testu osoa oraingo Lege honen euskarazko testuaren arabera erregularizatu eta harmonizatu dezan, lan hori aurrera eramanez ahal izateko beharbesteko ahalmena emanez.

Hizkera teknikoa egokitzea da beraz, hizkuntza alorrean, xedapen proiektuaren helburua. Gainontzeko aipamenak ere helburu honi lotuak dira.

Bat egiten dugu helburu honekin euskararen erabileraren normalizaziorako lagungarria izango delakoan.

Bestalde, gaia kontuan harturik interesgarria iruditzen zaigu esparru honekin loturiko beste hausnarketa bat hemen partekatzea. Eskertuko genuke baloratzea Lege Proiektu honetan tokia eduki dezakeen.

Zuzendaritza honetan kudeatzen dugu ELEBIDE – Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua. Jasotako kexak direla eta, badakigu isunak igortzerakoan ez direla beti herritarren hizkuntza eskubideak bermatzen.

Horrelako gertaera baten aurrean Gasteizko Sindikoak 2017ko martxoaren 17an emandako txostena oso interesgarria iruditzen zaigu. Hona ekarriko ditugu pasarte batzuk:

Agentek buletina euskaraz jakinarazteko modurik ez bazuten (eta, esan bezala, kosta egiten da sinestea), egin behar zutena zen herritarrari hori esan eta esplikatu zehapen espedientea irekitzeko ebazpena bere etxera bidaliko zitzaiola, euskaraz (edo elebitan), eta une horretatik aurrera bakarrik jarriko zirela martxan zegozkion izapide eta epeak (aurretiazko ordainketa, alegazioak...)

Izan ere, herritar bati jakinarazpen bat bidaltzen badiogu berak egindako hizkuntza-hautua errespetatu gabe, erabakia bera deuseza ez -indefentsiorik eragin ez bada behintzat-, baina jakinarazpena akastuna izango da, eta beraz, Prozedura Administratiboko 39/2015 Legeak ezartzen duenez (40.3 art.), jakinarazpen horrek ez du ondoriorik eragingo harik eta interesdunak jakinarazpenaren xede den ebazpen edo egintzaren edukia eta irismena zer den badakiela erakusten duen jardueraren bat egiten duen arte, edo egoki den edozein errekurtsio jartzen duen arte.

Gure ustez, hori da arazo honi eman dakioken erantzun zuzen bakarra; izan ere, ez litzateke bidezkoa izango, Administrazioak egindako ez betetze batengatik, kalteak eragitea bere eskubidea (hizkuntza-hautua) erabili besterik egin ez duen interesdunari.

Txosten osoa eskuragarri dago lotura honetan:

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/22/04/72204.pdf>

Azkenik, txosten honen esparrutik kanpoko gaia izan arren, ematen du euskarazko testuaren idazkeran akats batzuk daudela; adibidez:

- *“Nabardura batzuk”* (zioen azalpeneko 7. lerroaldea);
- *“Aipatu behar da, erebai, Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea adingabekoei aplikatzeko orduan egin beharrekoen gainean jadanik jasota zeuden xedapenen garapen batzuk sartu direla (jatorrizko idazkeraren 6.3 eta 11.2 artikuluetan zeudenena alegia)”* (zioen azalpeneko 8. lerroaldea);
- *“berdidaltzeko jasotzen erreferentzia guztiak”* (3 aldiz Xedapen Gehigarrian).

Laguntze aldera ohartarazten dizuegu, testua berrikusi eta zuzendu ahal dezazuen egokia baderitzozue.

Adeitasunez,

Joseba Lozano Santos
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria